

OGIBIDEAK

Sekuentzia honetan Durangon lehen eta orain nabarmendu diren ogibideen berri ikasiko dugu. Bide batez, kazetari bihurtuko gara, eta taldeka, inguruan duzuen pertsonaren bati bere ogibidearen eta honi lotutako bizitzaren gaineko elkarrizketa bat bideoz grabatuko diogu. Grabaketaz gainera pertsona horren fitxa osatuko dugu, bere biografia eta datu interesgarrienak jasoz. Ez ahaztu nonahi dagoela jende interesgarria!

.....	
<i>Mari eta konpainia</i>	2
.....	
<i>Durango Txikia</i>	3
.....	
<i>Historian zehar</i>	4
.....	
<i>Hiribilduko ogibideak Erdi Aroan</i>	5
.....	
<i>Ogibideen kalea</i>	6
.....	
<i>Durangoko Plateruak</i>	8
.....	
<i>Kausino</i>	9
.....	
<i>Plateruen lekuak</i>	10
.....	
<i>Trenaren etorrera</i>	11
.....	
<i>Langile batallioiak</i>	12
.....	
<i>Gerra osteko hazkundera</i>	13
.....	
<i>Lanak eta lanak</i>	14
.....	
<i>Azken ekoizpena</i>	15
.....	

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametza Interaktiboa • **Koordinazioa:** Iametza Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkiak:** Unai Iturriaga, Museo Vasco del Ferrocarril, Gerediaga Elkartea, Oskorri Taldea eta Durangoko Udala. • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutzia ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola. • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.

Mari eta konpainia



ZUEK ZER OGIBIDE
IZAN GURA DUZUE
NAGUSITZERAKOAN?

...LIHMM...
PENTSATU EGIN
BEHARKO NUKE.


NI ASTRONAUTA IZANGO
NAIZ ETA ESPAZIOA
KONKISTATUKO
DUT!



BA, NI ASMATZAILEA IZANGO NAIZ
ETA ESKOLAKO LANAK EGINGO
DITUEN ROBOTA ASMATUKO DUT.

NI KAZETARIA!
MUNDUAN ZEHAR BIDAIATU
ETA HONDAMENDIEN BERRI
EMANGO DUT!


IKUSTEN HAN GOIAN EGUZKIA?
HARA IRITSIKO DEN LEHENENGO
PERTSONA IZANGO
NAIZ!



NAHI DUZU ZURE
ESPAZIO-ONTZIAREN
TORLOJUREN BAT
ESTUTZEA?

LISTE DUT KAZETARI LEGEZ
EMANGO DUDAN LEHENENGO
HONDAMENDIAREN
ALBISTEA ZARELA...

ZER MODUZKO HEGALDIA
IZAN DA?



BERRIKETAN

- Zer ogibide izan nahiko lukete nagusitan? Zergatik?
- Zer ogibidetan aritzen dira zuen ingurukoak?
- Interesgarria, erakargarria iruditzen zaie? Zer da zuentzako ogibidea, lana?









IDATZIZ LANDU

- Mari eta konpainiaren abentura irakurri ostean agertutako iritziak bildu eta jaso, testu txiki bat osatzeko. Gehien errepikatu direnak eta interesgarrienak iruditzen zaizkizunak nabarmendu.


Durango txikia

Sekuentzian zehar gure Durango Txikia sortzen joango gara. Gaiarekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue, liburuak, argazkiak, objektuak... Seguru azken ekoizpena egiteko bidean lagungarri gertatuko zaizkigula!





Gizakiaz ezagutzen ditugun lehenengo aztarnetatik badakigu langintza ezberdinei ekin behar izan diela bizirauteko. Bere trebetasunak garatu dituen heinean, mendeetan aurrera joan ahala, **langintza konkretuetan espezializatu** da eta hortik datoz gaur egun **ogibideak edo ofizioak** deitu ohi diegunak.



Erromatarren aztarnarik ez da aurkitu gure eskualdean baina horrek ez du esan nahi gertatu ez zenik. Erromatarrek mendean hartutako herrialdeak Erromarekin lotzeko bidesare sendoa ezarri zuten. Baliteke, bigarren mailako bideren batek Urkiola eta Oiz garaiko itsas portuekin lotzea (Forua, Bermeo, Lekeitio...).

Ehiztari-biltzaileak dira. Kobatan bizi dira (adibidez: Asuntze, Abadiño). Harrizko tresnak.

Burdinaren erabilerari ekiten dio gizakiak, armak zein bestelako lanabesak sortzeko.

Biztanleak Kastro izeneko goi-gune gotortuen inguruan antolatzen dira. (Tromoitioko Kastroa, Garai).

Ehiza eta bilketa utzi gabe, **nekazaritzan eta artzantzian hasiko** dira. Herrixketan bizi dira. Lursail txikiak landatu eta abereak haziko dituzte. Premietarako egokitutako tresneria sortu: zura, zeramika...

Ehiztari-biltzaileak dira. Kobatan bizi (Adb: Bolinkoba, Abadiño; Askondo, Mañaria). Harriaz gainera, hezurak, silexa... lantzen dute. Larrugintzan hasten dira. **Apaingarriak eta labar-arteak** agertzen dira.

XIII. mendean Durangoko hiribildua sortzen da. Nekazaritza eta abeltzantza presente dauden arren, **merkataritza eta artisautza** (oihalgintza eta burdinaren eraldaketa) nagusituko dira. Langileak ogibideka antolatzen hasiko dira.

Durango sortu zen garaian, hiribilduan biltzen ziren ogibide ezberdinei buruzko lantxo bat egiteko eskatu diote Mariri eskolan. Osaba Bittorrengana jo du, bai baitaki Osaba Bittorrek asko dakiela garai bateko kontuetaz.



Osaba Bittorrek dio

Zarratu begiak, ume, eta imajinatu gaur egungo Durangoko alde zaharra beste modu batean. Kaleak estuagoak dira, ez dago espaloirik eta zorua lurrezkoa da. Etxeetako teilatuen hegalek ia elkar jotzen dute kale ilun eta hezeak sortuz. Etxe gehienak bi solairutakoak dira: behean tailerra edo denda dute eta goian etxebizitza. Tailer eta dendetako salgaiak kalean jarritako mahaietan eskaintzen dituzte.

Artisauak dira nagusi. Batetik **oi-halgileak** daude, arropetarako eta bestelako erabileretarako oihalak egiten dituztenak. **Ardi merinoaren artilea erabiltzen dute. Artilea garbitzetik hasi eta tindatzerainoko pausu guztietaz** arduratzen dira.

Burdingileena zen beste ogibide nagusietako bat. Hiribilduaz kanpo zeuden errenterietan pisatu ostean, etxabeetan zituzten tailerretara iristen ziren lingoteak, behin bertan, labeetan eraldatzeko. Burdingileen artean ere hainbat ogibide bereizten ziren: **baziren armagileak, iltzegileak, zartaginak eta bestelako lanabesak egiten zituztenak...**

Baziren baita danetariko salgaiak garraiatzen zituzten mandazainak ere. Bai lehengaiak (artilea, burdina, jakiak...) hiribildura ekartzeaz ardu-

ratzen zirenak eta baita hauek eraldatu ostean, izan itsas-portuetara zein mesetarantza, garraiatzeko zeregina zutenak.

Lanak jana eskatzen baitu, garai hartako Durangon ere baziren sabela betetzeko jeneroa saltzeaz arduratzen zirenak. Hala, **harakinek inguruko abeltzainek hazitako hazienden haragia saltzen zuten**, behi eta ahariena nagusiki.

Arrainaren salmentan merkatariek eta mandazainek ere parte hartu arren, **aipatzekoak dira portuetatik arrain-otzarekin etortzen ziren emakumeak.**

Eta **merkatariak**, jakina. Durangon bertan jeneroa sal-erosteaz eta itsas-portuetatik edo mesetatik lehengaiak ekartzeaz arduratzen ziren. Durangok Gaztelatik itsas-portuetara bidean (Bilbo, Bermeo...) kokapen estrategikoa zuenez, hainbat merkatarik diru-poltsak majo betetzen zituzten orduan ere.

Ostalariak, botikariak, bizargileak, zilargileak, margolariak... Horiek eta imajina ditzakezun hainbeste ogibide biltzen ziren hasierako Durangoko hiribildu hartan. Pentsatuko duzunez, kale estu eta gerizpetsu haietan ez zen atzera-aurrera eta zalapartarik faltako.

Ogibideen kalea

nor:

.....

zer egiten duen:

.....

.....

nor:

.....

zer egiten duen:

.....

.....



nor:

.....

zer egiten duen:

.....

.....

non:

.....

nor:

.....

zer egiten duen:

.....

.....

non:

.....



nor:

zer egiten duen:

non:



nor:

zer egiten duen:

non:

Antonio de la Fuente

1758 (?) - 1830 (Durango)

Juan Kruz de la Fuente

1758 (?) - 1830 (Durango)



Durangoko Plateruak

Antonio eta Juan Kruz de la Fuente anaiak ziren Durangoko Plateruak. Ogibidez zilarginak baziren ere (hortik datorkie gaztelerazko formako Plateru izena) gaur egun oraindik ezagunak badira euren bertso, doinu eta pasadizoengatik da.

Zilarginak eta artistak

Burgoskoa zuten aita eta gasteiztarra ama. Aitarekin eta beste anaia batekin batera (Santiago Maria) zidargintzan aritzeaz gainera, Juan Kruzek bertsoak eta koplak idazten zituen eta Antoniok doinua jarri anaiak jarritakoei.

Errege erreginak Durangon

Dantzari trebeak ere ba omen ziren ze, 1828. urtean, Espainiako errege-erreginek Durangora bisita egin zutelarik anaia biak izan ziren haien aurrean aureskua eta atzeskua dantzatzeko aukeratuak. Ordurako adintsuak baziren ere, gihartsua eta lerdena ei zen Antonio, lodikotea aldiz Juan Kruz. Azken honek barre algarak eragin omen zizkion Madrildik Durangorako bidea muturtuta egin zuen erreginari garaiko kronikek diotenez.

Bide-lapurak Urkiolan

Ospetsuak izateaz gainera herritarrek estimutan ei zituzten. Behinola, Urkiola inguruan, herririk herri eurek landutako zilarrezko piezak saltzera zihoazela bide-lapurak atera ei zitzaikien aldean zeramaten guztia emateko aginduz. Hainbeste zilar ikustean, lapurretako batek ezagutu eta beste lagunei bakean utzi eta minik ez emateko agindu ei zien, pertsona ondratu eta famatuak baitziren gure bi anaiok.

BERRIKETAN

- Entzun duzu inoiz ezer Durangoko Plateruei buruz?
- Ezagutzen duzu Durangoko Plateruekin lotura izan dezakeen toki edo guneren bat?

Egunero txistua jotzen

Bertso jartzaile bakarrik ez, txistularia ere ba omen zen Juan Kruz de la Fuente. Goizero goizero, hamaika t´erdietatik hamabietara txistua jotzen ei zuen bizitoki zuen Barrenkaleko etxeo balkoitik.

Bertsoak eta kantak

Zoritxarrez ez dira asko gure garaietara iritsi diren Plateruen bertso eta kantak, dozena inguru. Izan da "Hator hator mutil etxera" gabonkanta ospetsuaren egiletzat jo dituenik ere. Hori horrela denik ez dago frogatzerik, bai oster, gure bi anaiok hara-hona euren zilarreriak saltzen zebiltzala hamaika bertso eta kanta ikasi zutela eta baliteke eurentzakotzat jaso diren bat baino gehiago ibilera horietan bilduak izatea. Joaten utzi bakarrik ez, bide erdi baino gehiago lagun egin ei zieten lapurrek Durangoko Plateruek hainbat istorio kontatzen zizkieten bitartean.



Entzun: 3'44"

Kausino

DURANGO EZAGUTU • OGIBIDEAK



Oskorri

1971 an sortu zen Oskorri taldea Bilbon Natxo de Feliperen eskutik. Ordutik eta 2015. urtean desegin arte, hogeitamar disko baino gehiago argitaratu zituen herri musikan oinarritutako pieza berriak sortuz eta zaharrak berreskuratuz.

Beren-beregi haur eta gaztetxoei zuzendutako hainbat disko ere argitaratu izan ditu urteotan, hala nola: *Doktor Do Re Mi eta Benezidebra*; *Ekidazu*; *Marijane kanta zan!*; *Katuen Testamentua*...

Kausino euskal filosofo

Musika: Durangoko Plateruak

Hitzak: Durangoko Plateruak

/ Natxo De Felipe

Sekreto handia da ta marabillosua
Kausinoren liburuan agerturikua (err.)

**Ez diamante ez perla
Ez urregorririk
Alegrantzia baino
ez dago hoberik. (err.)**

Kausinok esaten dau lehenengo tonuan,
ez dala ibili behar penaren damuan (err.)

Ez diamante...

Seinzainak haurtxoeri kantetan dautsena,
hori da alegriaren eskola onena (err.)

Ez diamante

Munduko tristezia melankoliña da
horrendako ayudea hartu badaezpada (err.)

Ez diamante

Izan nahi ez badozu munduan erruki,
Kausinoren liburua presente eduki. (err.)

Ez diamante...

Plateruen lekuak



Durangon badira gutxienez bi leku edo gune “Durangoko Pleteruei” erreferentzia egiten dietenak. Biak ere elkarrengandik oso gertu. Ezagutzen dituzue? Badakizue non dauden? Izan zarete inoiz bertan?



Plateruen plaza.

Plateruena
Kafe Antzokia.



OSATU FITXA

- Bildu Plateruena Kafe Antzokiari buruzko informazioa (inguruan, sarean...) eta osatu ondorengo fitxa.

Izena:

.....

Biografia laburra:

.....

.....

.....

.....

Bestelakoak:

.....



1882ko ekainaren 1ean egin zuen lehenengo bidaia Bilbo eta Durango lotzen zituen trenak. Bidaiariak eta zama batetik bestera eroatea errazteaz gainera, trenarekin batera aldaketa handiak iritsi ziren Durangora. Izan ere, 1880ean oraindik gizonezko langileen erdiak burdingintzan ari ziren artisauak ziren. Trenarekin batera Durangon hazi zen metalaren industrian sarrera zuzena izan zuten langileok.

Industriaren sorrerak burdingintzako artisauak ezeze, albo-herrietako nekazariak ere erakarri zituen fabriketara soldata finko batek erakarrita. Ohiko ogibideek ere bultzada jaso zuten trenaren etorreraren ondorengo hazkunde urteetan. Eraikuntza lanetan aritzeko (igeltsero, arotz...) eta herritarrak jakiz zein arropaz hornitzeko (zapatariak, jostunak...) lanik ez zen falta izan.

1880an durangar langileen ia erdiak artisauak ziren eta, 1930ean hamarretik bat eskas.

1888an Durango eta Zumarraga arteko trenbidea inauguratu zuten, 1901ean Donostiaraino iritsiko zena. Hamarkada bat geroago Durango, Elorrio eta Arrazolako mehategiak lotuko zituen linea eraiki zuten.



BERBETAN

- Bilbo eta Durango lotzen zituen lehenengo trenak ordubete eta hogeitasei minutu behar zituen Bilbotik Durangorako bidea egiteko. Alderantzizko bidea egiteko oster, Durangotik Bilbora, ordubete eta laurden nahikoa zituen. Badakizu zergatik?

Durango-Zumarraga bidea egiten zuen trenaren zubia Mikeldin, Durangon. 1886, Trenaren Euskal Museoa.

Langile batailoiak

1937ko martxoaren 31n jasandako bonbardaketaren ostean suntsituta geratu zen Durango. Hirurehunik gora izan ziren hildakoak eta horretaz gainera herria bera ere berreraiki egin behar izan zen, alde zaharra bereziki.

Presoak erabili zituen berreraikitze lan horretarako gerra irabazi zuen bando faxistak. Presook Langile Batailoiak legez ezagutzen diren taldeetan biltzen zituzten. 14 zenbakidun Langile Batailoiko lehenengo konpainia izan zen Durangoko hondakinak garbitzeko ardura izan zuena. Nork bere ogibidea izango zuen preso haien artean baina orduko hartan, "Langile Batailoï" izenpean esklabo lanak egitera behartu zituzten.

Andra Mariko elizpea bonbardaketaren osteko konponketa lanetan.



Andra Mariko elizpea bonbardaketaren osteko konponketen ostean.



Populazioaren hazkundera

Gerraostea gogorra izan zen durangar gehientzat. Gerrak utzi zituen zauriez gainera hamarkada batean, elikagaien eta lanaren eskasia pairatu behar izan zituzten. 1950eko hamarkadan diktadurak bere horretan jarraitzen zuen baina lanari dagokionez mugimendua sortu zen. Enpresa berriak sortu ziren eta 1960tik aurrera, 1980ko hamarkadara arte, industriaren hazkundera itzela izan zen.

Migrazioa

1940tik 1980a bitartean Durangoko biztanlegoa hirukoiztu egin zen. Industrializazioarekin batera migrazioek gora egin zuten. Inguruko herrietatik eta, batez ere, Espainiako estatutik (Andaluzia, Extremadura, Gaztela...) biztanle berri mordoa jaso zuen Durangok eta, horrekin batera, industriarako langileak.


Migrazio horien eraginez, 1950eko hamarkadatik aurrera langileentzako auzuneak eraikitzen hasi ziren, hala nola, Juan Itziar, San Fausto eta gaurko Aramotz auzunea bera, adibidez.



Durangoko biztanleriaren bilakaera 1930 eta 1981 artean

URTEA	1930	1940	1950	1960	1970	1981
BIZTANLERIA	8.572	8.251	9.863	14.417	22.354	26.101

Iturria: Durangoko eta lurretako biztanleriaren erroldak.



Ordura arte etxetik kanpo ziharduten emakume gehienak neskame edo inoren etxeko zerbitzuetan aritzen ziren. Hamarraldi horietan emakumeak industrian ere sartzen hasi ziren, oso lan eta enpresa zehatzetan, hala ere.


1981ean hiru langiletik bik industrian ziharduen eta nekazaritzan aritzen zirenak ehunetik bat ziren justu-justu. Merkatariek eta zerbitzuetako langilek osatzen zuten taldea ere gero eta indartsuagoa zen.



Ikusiko duzuen bideoan gerraestetik eta 1980ko hamarkadara arte behintzat Durangoko enpresa ezberdinetan lanean aritutako jendeak hitz egiten du, www.ahotsak.eus/durango/ ataritik hartutakoak dira testigantza hauek. Merezi du bisita bat eta seguru azken ekoizpenera begira lagungarri izango zaigula.

BERBETAN

- Bideoa ikusi ostean, taldeak antolatu bertan aipatzen diren gaiak eta gaur egungo egoera konparatzeko. Talde bakoitzak moderatzaile bat izendatu beharko du solaserako txandak antolatzeko, eta idazkari bat, ondorioak idatziz jasotzeko. Taldeko emaitzak gelako kide guztiei azaldu amaieran.



XXI. mendeko Durango

XXI. mendeko Durango, eskualde buru gisa, batez ere zerbitzuak eskaintzen dituen hiri txiki bat da.

Durangoko biztanle berriak inguruko herrietatik zein urruneko herrialdeetatik datoz gaur egun.

DURANGON
LANEAN
DIHARDUTENEN
HEREN BAT INGLURU
BAKARRIK ARI DA
INDUSTRIAN



Iritsi da azken ekoizpenari ekiteko ordua. Orain zeuek bihurtuko zarete kazetari. Aurkezpenean esan bezala, elkarrizketatua zein izango den erabaki beharko duzue taldean. Gogoan hartu hautatzerako orduan pertsona horren ogibideak izan behar duela motibo nagusia.

Kontuan hartzekoak:

- 1** Elkarrizketatua nor izango den erabaki eta harekin kontaktua egin elkarrizketa eguna eta lekua zehazteko.
- 2** Pertsona horren bizitzari eta ogibideari buruzko informazioa bildu: bere inguruko jendearengandik, interneten, liburuetan...
- 3** Elkarrizketara begira, ardurak banatu taldekideen artean: nor arduratuko den kontaktua eta harrera egiteaz, nor grabatzeaz, nortzuk galderak egiteaz...
- 4** Galderak prestatuta eraman eta argi eta zehatz planteatu. Elkarrizketatuak bestelako galderarik egiteko bidea ematen badu, egin. Elkarrizketatuari lasai hitz egiten utzi. Ez eten solasaldia.
- 5** Elkarrizketan jasotako datuekin pertsonaren fitxa osatu: izen-abizenak, jaiotza data, biografia laburra, ogibidea...
- 6** Elkarrizketa ikasgelako kideen aurrean aurkezterakoan aukeraketarako motiboa azaldu. Bideoaren aurretik fitxan jasotako datu garrantzitsuenak eman (ez erreplikatu gerora bideoan agertuko denik).
- 7** Gozatu! Jende interesgarria alde guztietan dago!

Ez ahaztu!

Elkarrizketaren bideoak eta fitxak Durango Ezaguturen webgunera igo gero zuen lagunekin edo familiariko kideekin ikusi ahal izateko.



Zer ikasi dut?



1. Zer ikasi dut?

.....
.....

2. Zelan ikasi dut?

.....
.....

3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?

.....
.....

4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?

.....
.....

5. Gehien gustatu zaidana

.....
.....

